



LEHEN HEZKUNTZAKO 1. zikloa: IPUIN SARITUA

JAK LAILATARRA. Neike Martiartu Barroso



Orain dela urte asko Jak izeneko lailatarra Laila planetan bizi zen eta bere izarrak Lila izena zuen, eta bere astroa Lali zen. Jakek begi bakarra eta morea zuen, bera berdea zen eta belarri laranja zituen.

Egun batean Jakek ideia bat izan zuen, Lurra bisitatzera joan zen. Orduan bere ovnia hartu eta Lurrerantz abiatu zen. Lurrean Odei izeneko mutil bat aurkitu zuen eta lagunak egin ziren.

Egun batean Odeiren gurasoak hil ziren eta Odeik ez zekien zer egin. Denbora pila-pila bat pentsatu eta gero, Jakek beste ideia bat izan zuen. Jaken ideia Odei Lailara eramatea zen baina Odeik esan zuen:

—Ezin dut, han ez dagoelako oxigenorik.

—Baina zuk ez dakizu gauza bat, Lailan Lurrean baino oxigeno gehiago dago.

—Orduan oxigenoa baldin badago zurekin bizitzera joango naiz—
Esan zuen Odeik.

Ovnian sartu eta Lailara abiatu ziren. Lailan abentura pila-pila bat izan zituzten. Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Lailako plazan.